

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **Arabako Batzar Nagusien erabakia, Arabako Batzar Nagusietako atezain-gidari baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren oinarriak eta deialdia onesteko**

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak, 2022ko azaroaren 29an egindako bilkuran, honakoa erabaki du:

Arabako Batzar Nagusien erabakia, Arabako Batzar Nagusietako atezain-gidari baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren oinarriak eta deialdia onesteko.

Lehena. Deitzea atezain-gidari lanpostu baterako hautaketa-prozesua, Arabako Batzar Nagusietako Teknikari laguntzaileen Kidegoan karrerako funtzionario izateko.

Bigarrena. Onestea deialdia arautuko duten eta eranskin gisa dauden oinarriak.

Hirugarrena. Argitaratzea Arabako Batzar Nagusietako Teknikari laguntzaileen Kidegoan karrerako funtzionario izateko atezain-gidari legelari-lanpostu baterako hautaketa-prozesuaren deialdia, ALHAOn eta Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 7a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**



Arabako Batzar Nagusiak  
Juntas Generales de Álava

## ERANSKINA

### OINARRIAK ETA DEIALDIA, MANDATARI-GIDARI LANPOSTU BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUARENAK

#### 1.- XEDEA

1.1.- Deialdiak xede hau du: Arabako Batzar Nagusietako Administrazio Orokorreko mandatari-gidari lanpostu huts bat lehiaketa bidez betetzea, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritako salbuespeneko prozesuaren bidez.

Lanpostua 2022rako enplegu publikoaren eskaintzan sartuta dago (2022ko maiatzaren 27ko ALHAO, 61. zk.).

1.2- Arabako Batzar Nagusietako lanpostu-zerrendan deskribatuta dago lanpostua; lanpostu-zerrenda 2019ko abenduaren 3ko Mahaiaren erabakiaren bidez onetsi zen, eta abenduaren 13ko ALHAOn argitaratu zen. Ezaugarri hauek ditu lanpostuak:

- TALDEA: C2 (C).
- KATEGORIA: MANDATARI-GIDARIA:
- ZERBITZUAK EMATEKO LEKUA: Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusia (Vicente Goikoetxea kalea, 2. Vitoria-Gasteiz).
- DESTINO-OSAGARRIAREN MAILA: 15
- BERARIAZKO OSAGARRIA: Batzar Nagusietako Mahaiak onetsitako lanpostu-zerrendan adierazitakoa.
- LANALDIA: Batzar Nagusietako Mahaiak Ganberako langileentzat adierazitakoa. Zerbitzu-beharrengatik prestasun askea dakar berez lanpostuak.
- HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 2.a, nahitaezkoa.
- Nahitaezko IT Txartelak: Word 2010 oinarrizkoa, Excel 2010 oinarrizkoa, Outlook 2010

#### Eginkizunak:

- Gidaria. (Lehendakaria, Mahaia, batzordekideak...)
- Ibilgailuaren oinarrizko mantentzea (garbiketa, erregaia hartzea, tailerra, IAT...)
- Publikoari eta batzarkideei arreta eta informazioa ematea, aurrez aurre zein telefono bidez. Eskaera behar bezala bideratzea eta arretaren jarraitutasuna bermatzea. Telefonogunea eta bisitei laguntzea.
- Osoko bilkuren, batzordeen eta prentsaren aretoak prestatzea. Osoko bilkuretan eta batzordeetan laguntza ematea. Bilkurak ondo joan daitezen behar diren baldintza materialak ahalbidetzea: agiriak banatzea, megafonia- edo bozketa-sistemak erabiltzen laguntzea, hizlarietako ura edo kafea... Bileretako beharrezko erantzutea, presako fotokopiak, abisuak eta agiriak banatzea.
- Egiten diren protokolo-jardueretan laguntzea. Batzar Nagusiek edo beren ordezkariaren batek parte hartzen duten bisita instituzionaletan eta protokolo-ekitaldietan prestaketa-lanak egitea, laguntzea eta arreta ematea, egoitzaren barruan zein kanpoan.

- Gutunazalak eta etiketak inprimatzea, Postara eramateko dokumentazioa prestatzea (jaso izanaren agiriak, ziurtagiriak...), mezularitza bidezko bidalketak, Aldundira eta beste instituzio batzuetara bidalketak egitea eta haietatikoak jasotzea.
- Barne zein kanpo dokumentazioa eta korrespondentzia guztia banatzea eta kudeatzea; zerbitzuaren erregistroak eta artxiboak eta haiek erreproduzitu eta bideratzea. Argitalpenak eta agiriak artxibatu eta banatzea.
- Elementuak, datuak, zerrendak, agiriak eta abar erregistratzea, erkatzea eta konpultsatzea (aparkalekuen erabilera- erregistroa, aseguruak, mantentzeak, telefonoak eta esleitzen zaizkion beste batzuk. Dokumentazioaren kontrola).
- Inbentarioaren eta albaranen kontrola. Materialen sarrera eta irteera kudeatzea, eta ondasun eta materialen inbentarioan parte hartzea.
- Leku-aldatze txikiak: altzariak, tresnak, informatika-materialak, ur botilak, material edo horniduren kutxak.
- Larrialdietarako, sua itzaltzeko bitartekoak kontrolatzeko eta ebakuaziorako planaren arabera emandako eginkizunak.
- Administrazio-unitateei laguntza emateko beste edozein zeregin eta, hala badagokio, bere lankidea ordeztzea.
- Bere kidegoari dagokion beste edozein eginkizun.

## 2.- BALDINTZA OROKORRAK

2.1- Izendapenak Arabako Batzar Nagusietako karrerako funtzionario izaera emango die hautatutako pertsoneri, gai horretan indarrean dauden xedapenek adierazten dituzten eskubide eta betebeharrak guztiek.

## 3.- IZANGAIEN BETEKIZUNAK

3.1- Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, izangaiek, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, hautaketa prozesuak dirauen bitartean eta, hala badagokio, adjudikatzen zaien lanpostuaz jabetzeko unera arte, betekizun hauek bete behar dituzte:

3.2- Betekizun orokorrak.

a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuaren nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, baita haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta ezkontideak zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.

c) Behar den besteko gaitasun funtzionala edukitzea zereginak betetzeko, eta ez izatea eginkizunak betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik.

d) Dagokion deialdi espezifikoan eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztatzea eduki behar da.

e) Diziplina-espedita bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabera erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki



ezgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko. Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziiplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Indarrean dagoen araubidearen arabera, ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez egotea.

### 3.3- Betekizun espezifikoak

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuko, Batxilergoko edo lehen graduako Lanbide Heziketako titulua edo titulu baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Azterriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

b) Betekizuna izango da B gidabaimena edukitzea.

c) 2. hizkuntza-eskakizuna, nahitaezkoa.

Euskarazko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko kontsulta egingo da Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB). Egiaztatutzat joko dira erregistro horretan sartuta dauden eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago egiaztatu diren hizkuntza-eskakizunak.

Euskararen jakite-mailari buruzko ziurtagiriak edo tituluak dituztenek, aipatutako erregistroan jasota ez badaude, eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik aurkeztu beharko dute egiaztagiria.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako hizkuntza-eskakizunen ziurtagiri eta titulu baliokideak dekretu hauetan zehazten dira: azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (zeina euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko baita) eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren (Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta DBHko tituluari lotuta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena).

d) Informatika-egazutzen ziurtagiri hauek egiaztatu behar dira izena emateko epea amaitu aurretik:

- Microsoft Word 2010, oinarritzko maila
- Microsoft Excel 2010, oinarritzko maila
- Microsoft Outlook 2010

Informatikako eta mekanografiako egazutzen egiaztapena baloratzeko, Euskadi Informazioaren Gizartean Planak KZGune zentro publikoetan zuen esku jartzen dituen moduluak lortu izana egiaztatzeko IT Txartela egiaztapen-sistema erabiliko da.

Tecnalia Research & Innovation-en erregistroetara sartzeko adostasuna.

Hala nahi dutenek beren eskabidean adostasun espresua eman diezaiekete Arabako Batzar Nagusiei egindako alegazioaren zehaztapena egiaztatzeko beharrezkoak diren erregistroetara sar daitezen, eta egiaztatzenetik salbuestita geratuko dira. Adostasun hori ematen ez dutenek agiri bidez egiaztatu beharko dituzte egazutza horiek, ezarritako epeen barruan.

Eskatutako IT Txartelak egiaztatzen ez dituztenak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

#### 4.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

##### 4.1- Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

a) Deialdi honen xede den plaza hornitzeko hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dute eskabidea, dagokien deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

b) Eskabideak Arabako Batzar Nagusien Enplegu Publikoaren Atariaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://www.jggalava.eus/eu/enplegu-publikoaren-ataria>); edo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen helbide elektronikoaren bidez ([www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)), onartutako ziurtagiri elektroniko batez identifikatuta.

Oinarrietako 5. atalean adierazitako tasaren ordainketa telematikoa jasoko da eskabidean.

Salbuespenez, onartzeko eskabidea eta gainerako agiriak Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz aurkeztu ahal izango dira. 39/2015 Legeak erregistro elektronikoaz xedatzen duenak ondorioak ez dituen bitartean, onartzeko eskabidea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako lekuetan aurkeztu ahal izango da.

4.2- Hautaprobetarako onartuak izateko eta haietan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte. Adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatzen diren betekizun guzti-guztiak, betiere aurkezteko epearen azken egunari dagokionez.

Horretarako, datu hauek adierazita egon beharko dira eskabidean, zein bere atalean:

- a) Eskatzen diren datu pertsonalak.
- b) Zein plazatarako lehiatu nahi den.
- c) Titulazio akademikoa
- d) B gidabaimena
- e) Euskarazko hizkuntza-eskakizunaren egiaztapena
- f) IT Txartelen egiaztapena

4.3- Indarrean dagoen datu pertsonalen babeserako legeria betez, hautaketa-prozesuak kudeatzeko eskatzen diren datuak "Hautaketa Prozesuak" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira, Arabako Batzar Nagusiekin kolaboratzeko izangaien datuak kudeatzeko; datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, aurkaratzeko mugatzeko eta eramateko eskubideak Arabako Batzar Nagusietara joz gauzatu daitezke (dpd-dbo@jggalava.eus).

Hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenek espresuki baimentzen dute, kontratakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak tratatzeko oinarri hauetan adierazitako moduan eta xedearekin, bai eta Arabako Batzar Nagusiek egiaztatu dituzten euskara-ezagutzen maila (Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan) eta informatika-ezagutzen ziurtagiriak.

- Tratamenduaren arduraduna: Arabako Batzar Nagusiak.

Tratamenduaren xedea eta aurreikusitako erabilerak: Arabako Batzar Nagusietako langile izateko oposizioak kudeatzea. Arabako Batzar Nagusien zerbitzuak emateko langileak hautatzeko prozesuak



Arabako Batzar Nagusiak  
Juntas Generales de Alava

kudeatzea, eta haien jarraipena egitea, bai eta prozesu horietan parte hartzen dutenei prozesuari buruzko informazioa ematea. Bereziki, parte hartzeko eskabideak kudeatzea, probetarako egokitzapenen eskaerak kudeatzea, onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratzea, probak kalifikatzea eta merituak baloratzea, prozesuekin lotutako erreklamazioak eta errekursoak kudeatzea, prozesuan zehar eskatzaileek emandako dokumentazioa kudeatzea, probetarako asistentzia kontrolatzea, ziurtagiriak ematea, prozesuen datu historikoak kontsultatzea, azterlanak eta estatistikak egitea, lan-poltsak kudeatzea.

- Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da administrazio publikoei beren langileak hautatzeko eman zaizkien ahalmena baliatzeko (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu batagina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea).

Datuen hartzailea: Datuak Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiak tratatuko ditu, langileen kudeaketa osoa egiteko.

#### 5.- AZTERKETA-ESKUBIDEAREN TASAK

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek 15 euroko tasa ordaindu beharko dute, eskabideak aurkezteko epearen barruan:

Tasa ez da itzuliko eskatzaileari egoztekoak diren arrazoiengatik.

#### 6.- IRUZURREZKO JOKABIDEEN ETA LEHIA DESLEIALAREN TRATAMENDUA

Izangaiek ezin izango dute kalifikazio-epaimahaiko kideekin indibidualki komunikatu hautatze-prozesuarekin lotutako alderdiak jorratzeko, ez pertsonalki, ez hirugarren pertsonen bitartez. Hautatze-prozesuaren inguruko gaiak idatziz planteatuko dizkiote kalifikazio-epaimahaiari, eta horrek kide anitzeko organo gisa hartuko du dagokion erabakia.

Epaimahaia gaitasuna izango du hautatze-prozesutik baztertzeko edozein motatako iruzurra egiten duten pertsonak, baldin eta horrek probetako edozeinen funtzionamendu normala eragozten badu edo lehia desleiala eragiten badu berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioen arabera. Jarduketa horiek bilkuraren aktan jasoko dira.

Arau horietako bat urratzen duten izangaiek berehala baztertuko dira hautatze-prozesutik.

#### 7.- IZANGAIK ONARTZEA. ERREKLAMAZIOAK

7.1- Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta gehienez ere hilabeteko epean, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du Arabako Batzar Nagusietako Mahaia, eta Arabako Batzar Nagusien helbide elektronikoan (<https://www.iiggalava.eus/es/portal-empleo-publico>) eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearenean ([www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)) argitaratuko da. Zerrenda horretan adieraziko da zer arrazoiengatik baztertu den izangai bakoitza, baztertutako izangaien kasuan.

Interneten argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, deialdiko plazetarako izangaiek 10 eguneko epea izango dute, bai baztertzeko akats edo hutsak zuzentzeko, bai zerrendaren kontrako erreklamazioak aurkezteko, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ulertuko da behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtu direla. Aurkeztutako erreklamazioak onetsi edo ezetsi egingo dira onartutako eta baztertutako pertsonen behin-

behineko zerrenda behin betiko bihurtzen duen erabakian. Aurreko paragrafoan aipatutako helbide elektronikoetan argitaratuko da erabaki hori.

7.2- Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzi ostean, Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaik Erabaki bat emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko; zerrenda horietan ere, behin-behineko zerrendetan jasotako datuak zehaztuko dira.

Halaber, erabakian adieraziko da zer egunetan hasiko den baloratzekoak diren merituak aurkezteko izangaiek izango duten 10 egun baliouduneko epea.

7.3- Kasu guztietan, interesdunek hautaketa-prozeduran eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzeko baldintza da haiek egiaztatzea 12. oinarriaren arabera aurkeztu behar diren agiriak aurkeztuta; horrenbestez, agirien bidez egiaztatu ezean, interesdunak galdu egingo ditu hautaketa-prozesuan parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak.

## 8.- KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIA

### 8.1- Izendapena:

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaik erabaki bidez izendatuko ditu hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaiko kideak. Izendapenak Arabako Batzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onetsitakoan.

### 8.2- Osaera:

Epaimahaia lehendakari bat eta lau kide izango ditu, bakoitzak bere ordezkia duela, eta guztiak karrerako funtzionarioak izango dira. Kideetako bat idazkari izendatuko da.

Epaimahaiko kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Epaimahaia osatzean, espezialitatearen printzipioa errespetatuko da; horren arabera, epaimahaiko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar dute, eta guztiek ikasketak maila bereko edo goragoko titulu bat.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak kide bat izendatuko du (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 31.2 artikulua).

Halaber, ordezkaritza orekatuaren printzipioa ere bermatuko da, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 artikuluan jasota dagoen bezala.

Epaimahaia aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu bere kideei laguntzeko, komenigarria dela uste badu. Aholkulari horien jarduna, organo kalifikatzailearekiko lankidetzan, espezialitate teknikoetara mugatuko da.

### 8.3- Abstenitzea eta errekusatzea:

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aipatutako egoeraren batean badaude, epaimahaikideek ez dute egiteko horretan jardungo, eta horren berri eman beharko diote Arabako Batzar Nagusietako Mahaiari.

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako egoeraren bat gertatzen bada, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edozein unetan, aipatutako lege testu horren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

#### 8.4- Epaimahaikideak oinarrietara lotzea:

Epaimahaia oinarri hauei lotuta geratzen da.

#### 8.5- Jarduteko arauak:

Epaimahaia Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauen arabera jardungo du.

Betiere, lehendakariaren aginduz bilduko da epaimahaia, idazkariak bilera deia egin ondoren, eta, behar bezala eratzeko, lehendakaria eta idazkaria, edo horien ordezkioak, eta kideen erdiak bildu behar dira, gutxienez.

Erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketak lehendakariaren kalitate botoaren bidez ebatziko dira.

Lehendakaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, maila, antzinasun eta adin handiena duen epaimahaikideak ordeztuko du, betiere ordena horretan.

Idazkaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, epaimahaia gehiengoz aukeratzen duen kide batek ordeztuko du.

#### 8.6- Ahalmenak:

Epaimahaia autonomia funtzional osoz jardungo du; prozeduraren legezotasuna zainduko du, eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izango du.

Halaber, deialdiaren oinarrien interpretazioari dagokionez sortzen diren zalantzak eta auziak ebatziko ditu, ordenamendu juridikoari jarraituz; deialdi bakoitza behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu, eta jarraitu beharreko irizpideak ezarriko ditu oinarrietan jaso ez diren alderdiei dagokienez.

Hautatze-prozesuaren edozein unetan, deialdian zehaztutako betekizunak egiaztatzea eskatu ahalko du epaimahaia; horretarako, 10 egun balioduneko epea emango du, eta izangaietako batek betekizunak betetzen ez baditu, edo epe horretan egiaztatzen ez baditu, interesdunari entzun ostean, Batzar Nagusietako Mahaiari proposatu beharko dio hura baztertzea, baztertze arrazoiak azalduta.

#### 8.7- Kalte-ordainak

Epaimahaietan parte hartzeko bertaratzeek eta kolaborazioek eskubidea emango dute Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan adierazitako kalte-ordainak jasotzeko.

### 9.- JAKINARAZPENAK ETA INFORMAZIOA

9.1- Deialdien informazio orokorra hemen egongo da, interesdunen eskura:

- Interneten: [www.jiggalava.eus](http://www.jiggalava.eus) eta [www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)
- Arabako Batzar Nagusiak  
Vicente Goikoetxea 2, Vitoria-Gasteiz





9.2- Izangai bakoitzak, hala nahi badu, SMS eta/edo posta elektronikoa bidez jaso ahal izango du berak lortutako emaitzak argitaratzeari buruzko informazioa, baldin eta hautu hori espresuki egin badu hautaketa-prozesuan parte hartzeko aurkeztutako eskabidean, eredu ofizialean adierazitako moduan. Komunikazio horiek osagarriak izango dira; ondorio guztietarako baliagarriak diren bakarrak aurreko puntuetan adierazitako bitartekoen bidez argitaratutakoak izango dira.

## 10.- HAUTATZEKO PROZEDURA

10.1- Hautaketa-prozedura lehiaketa izango da.

Lehiaketa izangaiak alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratzea izango da, eta haietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, deialdian zehaztutako baremoen arabera.

Aurreko paragrafoan adierazitako agiriak Arabako Batzar Nagusien Enplegu Publikoaren Atariaren ([www.jjggalava.eus/eu/enplegu-publicoaren-ataria](http://www.jjggalava.eus/eu/enplegu-publicoaren-ataria)) edo Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen helbide elektronikoa ([www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)) bidez aurkeztuko dira; onartutako ziurtagiri elektronikoa bat erabiliz identifikatu behar dira izangaiak.

Salbuespenez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoaren arabera aurkeztu ahal izango dira aurreko paragrafoan adierazitako agiriak. 39/2015 Legeak erregistro elektronikoa xedatzen duenak ondorioak ez dituen bitartean, onartutako eskabidea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusita lekuetan aurkeztu ahal izango da.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da alegatzen diren merezimenduak edukitzeko erreferentziako data.

Ezin izango dira inola ere baloratu aurkezteko epearen barruan behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merituak.

10.2- Prozesuaren kalifikazioa gehienez ere 98 puntukoa izango da, eta baremo hauen arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du:

10.2.1- Esperientzia (gehienez 84 puntu)

- Arabako Batzar Nagusietan mandataritza-gidari lanpostuetan emandako zerbitzuetan izandako esperientzia baloratuko da. 56 puntu emango dira gehienez: 4 puntu zerbitzu-urte bakoitzeko, eta 0,33 puntu hilabete oso bakoitzeko urtebetetik beherako aldietan, edozein harreman juridikoren pean; salbu eta zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuetan.
- Administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan (Arabako Batzar Nagusiak ez direnetan) izandako esperientzia baloratuko da, gehienez 28 punturaino, administrazio orokorreko eskalari, azpieskala laguntzaileari edo mendeko azpieskalari dagozkion lanpostuetan edo gidari-lanetan edo oinarrien xede den lanpostuaren baliokideak direnetan: 2 puntu zerbitzu-urte bakoitzeko eta 0,166 puntu hilabete oso bakoitzeko urtebetetik beherako aldietan, edozein harreman juridikoren pean; salbu eta zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuetan.

Ondorio horietarako, administrazio publikotzat hartzen dira urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikuluan jasotakoak, unibertsitate publikoak, Gorte Nagusiak, parlamentu autonomikoak eta lurralde historikoetako batzar nagusiak barne; haiek dakarte administrazio publikoan emandako aurretiazko zerbitzuak aitortzea. Merkataritza-sozietate publikoak eta fundazioak, ordea, horretatik kanpo geratzen dira.

Arabako Batzar Nagusietan egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dituzte interesdunek, baina ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizioz konputatuko ditu administrazio horrek.

Gainerako administrazio publikoetan egindako zerbitzuak I. eranskineko ereduan egiaztatu beharko dira, administrazio publikoan aurretik emandako zerbitzuak aitortzeko abenduaren 26ko 70/1978 Legea aplikatzeko arauak emateko den ekainaren 25eko 1461/1982 Errege Dekretuaren arabera. Betiere banakatu egin beharko dira lan egindako aldiak, eta zehaztu aldi horiek zein kidego edo eskalatan, azpieskalatan eta klase edo kategoriatan egin diren.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru- eta toki-administrazioan egindako zerbitzuak baliokidetzat joko dira, uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak (euskal administrazio publikoetako kidego eta eskalen arteko baliokidetzat finkatzen duena) ezarritako moduan, eta otsailaren 25eko 1/2004 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeakoa) xedatutakoaren arabera egin beharreko eguneratzeen kalterik gabe.

Kalifikazio-epaimahaiak eskatu ahal izango du emandako zerbitzuen ziurtagirian jasotako datuen inguruko informazio osagarria.

#### 10.2.2- Prestakuntza osagarria (gehienez, 12 puntu)

- Gehienez ere, 2 puntu emango dira deialdiko baina goragoko talde bateko plaza bat eskuratzeko balio duten titulazio ofizial edo homologatuengatik (deialdian goi-mailako titulazioa eskatuz gero, doktoregoa edo maisutza kalifikatuko litzateke).
- Hizkuntzak: Ingeleseko, frantseseko eta alemaneko tituluak edo ziurtagiriak baloratuko dira, gehienez 2 punturekin, baremo honen arabera:

C2 maila: 2 puntu

C1 maila: 1 puntu

B2 maila: 0,5 puntu

Ondorio horietarako, honako honetan ageri direnak baina ez dira hartuko aintzat: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetako tituluak eta hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasunari buruzko ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren mailen baliokideak diren titulu eta ziurtagiriei buruzko eranskina.

Hizkuntza berean maila bat baina gehiago egiaztatu badira, mailarik altuenekoa besterik ez da baloratuko.

- Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten prestakuntza edo hobekuntzako ikastaroak, erakunde publikoek zein pribatu aitortuek antolatutakoak: 8 puntu gehienez.

- 0-10 irakastordu: 1 puntu

- 11-20 irakastordu: 1,5 puntu

- 21-80 irakastordu: 2 puntu

- 80 eskola-ordutik aurrera: 3 puntu.



Arabako Batzar Nagusiak  
Juntas Generales de Álava

## 10.2.3- Informatika-ezagutzak (2 puntu, gehienez)

Informatika- eta mekanografia-ezagutzen egiaztapena baloratzeko, Euskadi Informazioaren Gizartean Planak KZGune zentro publikoetan zuen esku jartzen dituen moduluak lortu izana egiaztatzeko IT Txartela egiaztapen-sistema erabiliko da.

Tecnalia Research & Innovation-en erregistroetara sartzeko adostasuna.

Hala nahi dutenek beren eskabidean adostasun espresua eman diezaiekete Arabako Batzar Nagusiei egindako alegazioaren zehaztapena egiaztatzeko beharrezkoak diren erregistroetara sar daitezten, eta egiaztatetik salbuetsita geratuko dira. Adostasun hori ematen ez dutenek agiri bidez egiaztatu beharko dituzte ezagutza horiek.

IT Txartela egiaztatzea:

Ziurtapen-proba egin ahal izateko, izena eman beharko dute egiaztatutako zentro batean. Zentroen zerrenda osoa honako helbide elektronikoa honetan kontsultatu daiteke: [www.it-txartela.net](http://www.it-txartela.net)

Egiaztapena jaulkitzen duen zentroak ezarritako arau orokorreari jarraituz egin eta kalifikatuko dira probak.

Betekizuna ez direnean, informatika-ezagutzen egiaztapena meritu gisa balioetsiko da, Euskadi Informazioaren Gizartean Planak KZGune zentro publikoetan IT Txartela egiaztapen-sistemaren bidez eskura jartzen dituen moduluak lortzearen bitartez.

Gehienez 2 puntu lor daitezke, honako baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Word 2010 Aurreratua	0,5
Excel 2010 Aurreratua	0,5
Access 2010	0,2
Mekanografia	0,2
Windows 7	0,2
Microsoft Power Point 2010	0,2
Internet Aurreratua	0,2
Office XP	0,2

## 10.3- Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa:

Lehiaketa aldiko merezimenduak baloratzean lortutako puntuazioaren batura izango da prozesuaren azken kalifikazioa.

Berdinketa gertatzen bada, lehenetsia emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren eskala, azpieskala eta klaseetan, salbu eta beste hautagai batzuek sexuagatiko bereizkeria ez diren baina neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak badituzte, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektiboetako batekoak izatea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, irizpide hauei jarraituz ezarriko da berdinketa hausteko lehenetsun-ordena, hurrenez hurren:

1. Deialdiaren xede den lanpostuan Arabako Batzar Nagusietan zerbitzuak ematen denbora luzeena egiaztatu duena.



Arabako Batzar Nagusiak  
Juntas Generales de Alava

## 2. Beste administrazio batzuetan zerbitzuak ematen denbora luzeena egiaztatu duena.

Aurkeztutako eta egiaztatutako merituen balorazioa eginda, azken kalifikazioen zerrendak egingo ditu dagokion epaimahaiak, puntuazio-hurrenkeraren arabera.

Azken kalifikazio horiek argitaratzen diren egunaren hurrengotik aurrera, hamar egun balioduneko epea izango dute interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahaian, betiere lehiaketa-fasearen edo, hala badagokio, berdinketak apurtzeko irizpideak aplikatzearen ingurukoak badira soilik.

### 11.- LANGILEAK HAUTATZEA

11.1- Erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, eta, hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzi ostean, epaimahaiak aginduko du hautatutako pertsonen zerrendak argitaratzeko.

11.2- Karrerako funtzionarioaren izendapen-proposamena egingo du epaimahaiak.

### 12.- AGIRIAK AURKEZTEA

12.1- Karrerako funtzionarioaren izendapen-proposamena argitaratzen den egunaren hurrengotik, 20 egun balioduneko epean izangaia aurkeztu beharko ditu deialdian eskatzen diren betekizunak eta gaitasunaren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak, baldin eta epaimahaiak ez badizkio lehenago eskatu 8.6 oinarrian ezarritakoaren arabera. Honako agiri hauek dira:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Izangai atzerritarren kasuan, jakinarazpen bat bidaliko diete Arabako Batzar Nagusiek, beren egoeraren arabera zehatz-mehatz zer agiri aurkeztu behar duten zehazteko.
- c) Eskala, azpieskala eta klase bakoitzean sartzeko eskatzen diren eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen adierazten diren tituluen fotokopia konpultsatua.
- d) Zinpeko adierazpena, zeinean adieraziko den izangaia ez dagoela funtzio publikoak betetzeko gaitasunaz gabetua, ez dela diziplina-espedita bidez baztertu administrazio publikoetan zerbitzuak ematek, eta ez duela abenduaren 26ko 53/1984 Legean (Administrazio Publikoen Zerbitzura diharduten Langileen Bateriaezintasunei buruzkoa) jasotako bateraezintasunik edo ezintasunik.
- e) Nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, zeinean adieraziko duten beren estatuan ez zaiela ezarri funtzio publikoan sartzeko eragozten dien diziplina-zigorrik edo zigor penalik.
- f) Lehiaketa-fasean baloratutako merezimenduen egiaztagiria.

Halaber, egiaztatu beharko dute ez daukatela oinarri hauen eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen arabera dagozkien eginkizunak betetzea eragozten dien urritasun edo akats fisiko edo mentalik. Horretarako, osasun-azterketa eta -probak igaro beharko dituzte, Arabako Batzar Nagusiek zehaztutako zerbitzuetan.

12.2- Oinarri honetako aurreko puntuetan aipatutako egiaztagiria jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak izan beharko dira.



12.3- Behar bezala justifikatzen bada ezin direla dokumentu horiek aurkeztu, zuzenbidearen arabera onargarria den edozein bide erabilita egiaztatu ahalko du izangaiak deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.

12.4- Aurkezteko lekua:

Agiri horiek Arabako Batzar Nagusien egoitzan aurkeztuko dira (Vicente Goikoetxea kalea, 2. Vitoria-Gasteiz. PK: 01008).

12.5- Agiriak ez aurkeztea:

Ezinbestezko kasuetan izan ezik, dokumentazioa adierazitako epearen barruan aurkezten ez dutenek edo dokumentazioa aztertu ostean ondorioztatzen bada ez dutela 3. oinarrian zehaztutako betekizunetako bat betetzen edo eginkizunak betetzeko beharrezkoa den gaitasun funtzionala ez dutenek ezin izango dira karrerako funtzionario izendatu; horrenbestez, haien jarduketa oro baliogabetuko da, eta, instantzian datu faltsurik adierazi badute, erantzukizunak eskatu ahalko zaizkie.

Kasu horretan, 11. oinarrian eta hurrengoetan adierazitako urratsak errepikatuko dira, betiere kanpoan utzita aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiengatik hautaketa-prozesutik baztertutako izangaiak. Hala ere, aurreko jarduketan errepikapena diren jarduketak egitea saihestuko da; horrenbestez, 12. oinarrian adierazitako dokumentazioa ez zaie eskatuko dagoeneko aurkeztu dutenei, eta osasun-azterketak eta -probak gaingiditu dituztenek ez dute halakorik egin beharko berriz.

Arrazoi berberengatik beste izangairik baztertzen bada, aurreko paragrafoan adierazi bezala errepikatuko da prozesua, eta hala hurrenez hurren, harik eta azaldutako arrazoiengatik hautatutako inor baztertzen ez den arte.

### 13.- PRAKTIKA-ALDIA

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak erabaki bat emango du praktiketako funtzionarioen izendapena onesteko, izangai bakoitza dagokion lanpostuan.

Erabakia honako hauetan argitaratuko da: Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean, Arabako Batzar Nagusien webgunean (<https://www.iiggalava.eus/eu/enplegu-publikoaren-ataria>), eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen webgunean ([www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)).

Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeko osasun-azterketa eta -probak egiteko deialdi pertsonalizatua egingo da.

Oro har, praktika-aldiak bi hilabeteko iraupena izango du.

Praktiketako funtzionarioa izendatzeko aurreikusitako egunean hautatutako pertsona aldi baterako ezintasun egoeran edo amatasun edo aitatasun baimenarekin badago, izendapena geroratu egingo da harik eta medikuaren alta jaso arte edo lizentzia bukatu arte.

Praktika-aldirako lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira.

Praktika- eta prestakuntza-aldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da; aldagai hauek baloratuko dira horretan:

- Zereginak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokoerak.



Arabako Batzar Nagusiak  
Juntas Generales de Alava

- Ekimena.
- Erantzukizuna eta egokitzea.
- Elkarlanerako jokaerak.
- Herritarrekiko eta lankideekiko harremanak.

Praktika- eta prestakuntza-aldia baloratzeko, ebaluazio-batzorde bat eratuko da: lehendakari batek eta bi kide osatuko dute, guztiak ere karrerako funtzionarioak.

Ebaluazio-batzordea honela eratuko da:

- Lehendakaria: Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza Nagusiko burua, edo berak eskuordetza ematen dion karrerako beste funtzionario bat.

- Bi kide, Arabako Batzar Nagusietako karrerako funtzionarioak. Bi kide horiek administrazio horretako beste karrerako funtzionario batzuen esku utz ditzakete beren eginkizunak.

Bi kideetako batek idazkari-lanak egingo ditu.

Ebaluazio-batzordearen osieran, emakumeen eta gizonen artean ordezkari batzuek orekatua bermatuko da, betiere trebetasun, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela.

Ebaluazio-batzordeak praktika- eta prestakuntza-aldia baloratu, eta "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioa emango du.

Praktika-aldia bukatzean, lanpostua atxikita dagoen unitate administratiboaren arduradunak praktika-aldiaren ebaluazioa egingo du, eta ebaluazio batzordeari jakinaraziko zaio ebaluazioaren emaitza, eta, emaitza negatiboa bada, interesdunari ere bai.

Ebaluazio-batzordeak dagokion kalifikazio-epaimahaiari helaraziko dio praktika- eta prestakuntza-aldia gainditu duten pertsonen zerrenda. Zerrenda hori loteslea izango da kalifikazio-epaimahaiarentzat.

Kalifikazio-epaimahaiak Arabako Batzar Nagusiko Mahaiari igorriko dio karrerako funtzionarioa izendatzeko proposamena.

Praktika- eta prestakuntza-aldia gainditu ezean, Arabako Batzar Nagusiko Mahaiaren erabaki arrazoitu bidez, izangaiak karrerako funtzionario izendatua izateko dituen eskubide guztiak galduko ditu.

#### 14.- KARRERAKO FUNTZIONARIOA IZENDATZEA ETA KARGUAZ JABETZEA

Arabako Batzar Nagusiko Mahaiak, erabaki bidez, Arabako Batzar Nagusietako karrerako funtzionarioa izendatuko du, eta dagokion lanpostuan atxikiko du.

Erabakia honako hauetan argitaratuko da: ALHAOn, Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean, Arabako Batzar Nagusien webgunean ([www.jjggalava.eus](http://www.jjggalava.eus)) eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen webgunean ([www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)).

Izendatuak hilabeteko epea izango du karrerako funtzionario-lanpostuaz jabetzeko, izendapena egiten duen foru-agindua ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik.

Epea hamabost egun baliodunetz luza daiteke, izendatuak hala eskatu eta arrazoi justifikatua badago.

Ezarritako epean norbait ez bada karrerako funtzionario-lanpostuaz jabetu, ezinbesteko kasuetan izan ezik, galdu egingo ditu Arabako Batzar Nagusietako funtzionario izaera eskuratzeko eskubideak.

Kasu horietan, edo izendatu edo karguaz jabetu aurretik hautatutako pertsonen uko egiten badute, edo karguaz jabetzeko unean lanpostua gorde gabeko eszedentzia eskatzen badute, dagokion epaimahaiak, behin bakarrik, praktika-izendapeneko proposamen osagarri bat egingo du, hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioaren puntuazio-hurrenkeraren arabera hala dagokien izangaien alde.



### 15.- DEIALDIA AURKARATZEA

Deialdia, oinarriak eta oinarrietatik zein epaimahaien jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurkara ditzakete interesdunek, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena) eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena) jasotako kasu eta moduetan.